



EGUNERO
DA EUSKADI
EGITEKO
EGUNA
2016

OHARRA: Hitzaldi hau aldatua izan daiteke. Balio duen bakarra, hizlariak berak ekitaldian ematen duena izango da.

NOTA: El discurso puede ser modificado parcial o totalmente por el orador. Solo es válido lo pronunciado en el acto.

2016.03.19 Andoni Ortuzar, Euzkadi Buru Batzarraren presidentea. EGI Eguna 2016.

19.03.2016 Andoni Ortuzar, presidente del Euzkadi Buru Batzar. EGI Eguna 2016.

EGIkideok, abertzale gazteok, zuen hausnarketak entzuten nengoela, burua nire gazte denborara joan zait, ni EGIkide nintzen aldira. Gogoratu egin ditut orduko gazteok, hirurogeita hamargarren edo laurogeigarren hamarkadan, genituen ardurak, arazoak eta haserreak. Eta ikusi dut arazo eta haserreak berdin-berdinak direla: ikasketak, lana, bizimodua ateratzeko arazoak, politika, etxebizitza izateko arazoak... Talde gisa ere, Euskadi askea lortzeko ekintza, erabakitze eskubidea, justizia soziala, inor bazterrean ez uzteko ahalegina, emakume eta gizonen arteko berdintasuna...

Baina denborak aurrera egiten du, eta ez du alferrik egiten. Zer esango dugu garai digital honetan, internet jaun eta jabe den honetan? Horregatik ez dut esango orduko egoeran bizi garela, lehengoak eta oraingoak berdinak garela edo orduko konponbideek balio dutela. Arazoak antzekoak izan ahal dira, bai, baina mundua eta Euskadi aldatu egin dira eta errezeta ezberdinak behar dira eta, batez ere, eragile, protagonista eta lider ezberdinak.

Es lo que os he venido hoy a decir aquí. Este es vuestro momento, esta es vuestra hora. Zuri Dagokizu! Zuei Dagokizue! La Euskadi del futuro, vuestro País, tiene que salir de vuestras manos, de vuestras cabezas, de vuestro compromiso. Y para tener futuro hay que tener presente. Vosotros y vosotras sois una parte importante de nuestro presente. Y humildemente pero con orgullo os digo que militáis en la mejor organización y en el mejor Partido para conseguirlo. Os decía en Iruña hace un mes, en la Asamblea General, que estuvierais orgullosos de ser de EGI, de ser Jeltzales, de ser Abertzales del PNV. Y orgullosos de lo que hemos hecho como Partido al frente de nuestras instituciones. La juventud tiene que ser rebelde, tiene que ser transgresora, no tiene que tener pelos en la lengua, pero tiene que ser espabilada y estar atenta para que no se manipulen sus objetivos e ilusiones.

Herri honetan ondotoxo dakigu zertaz ari garen. Hemen, batzuk herria eraikitzen ari ginen bitartean, beste batzuk, pankarta baten atzean, gu kritikatzeko eta "epelak" deitzen. Eurak omen ziren benetako abertzaleak, abertzale bakarrak. Eta euskal gazteen izenean hitz egiten omen zuten. Hemen "betigazte" asko egon dira beti, palestinoa eta forropolarra jantzita euskal gazteriaren zati handia engainatu zuten, eta gero gertatu zen gertatu zena.

Baina ez naz etorri inoren iragana ateratzera, ezta irakurketa politikoa egitera ere. Ez dut horren probetxurik atera nahi, ez dut polemikarik ireki nahi. Guztiz alderantziz, hemen nahi dudana da iragan hori gogoan izan dezagun hurrengo gazte belaunaldiak zulo horretan eror ez daitezten. Euskadiko gazte bakarrak pentsa ez dezan indarkeria dela arazo pertsonalen edo gizarte arazoaren konponbidea.

Y lo digo, sobre todo, porque no ya en Euskadi, sino en Europa, en todo el Mundo parece que hay un rebrote de los extremismos que utilizan a la juventud. Y me da igual que sean extremistas de derecha que de izquierda. Es igual que vayan repeinados con sus rubios flequillos que con las camisas arremangadas. Ni mister Trump ni el camarada Iglesias. Son populismos baratos que juegan con los sentimientos de la gente, que quieren pescar en el río revuelto de este mundo en el que hay, es verdad, muchas injusticias. Pero la solución a esas injusticias sociales no va a venir ni de los ultraliberales ni de los ultraizquierdistas. Y en Euskadi, igual. Claro que aquí tenemos problemas. Menos que en nuestro entorno. Pero eso ni debe ser consuelo, ni nos debe llevar a la autocomplacencia, ni mucho menos a quedarnos mano sobre mano. Tenemos problemas. Problemas que necesitan soluciones. Y gente que aporte soluciones. Hace falta gente positiva, dispuesta a actuar, a trabajar, a crear. No basta con criticar, no basta con decir que todo está mal. No hay soluciones mágicas que vienen ellas solas por generación espontánea.

Hemos oído estos días que el primer objetivo, el máximo objetivo, la solución a los problemas que tiene Euskadi es quitar al PNV de las Instituciones. Ese es el programa para Euskadi que tienen los que se reclaman la nueva política. Ese es todo su programa. ¿Sabéis lo que os digo? No hay nada más viejo ni más caduco, ni menos democrático, que el "quítate tú para ponerme yo". Lo inventaron en la antigua Atenas y en la vieja Roma. Y así empezó su declive. No creo que sea un buen ejemplo.

Ese es su máximo objetivo, sí, echar al PNV. ¿Sabéis cuál es hoy nuestro máximo objetivo, el del PNV y el del Gobierno del Lehendakari Urkullu? Sí, lo sabéis: el empleo. Un puesto de trabajo digno para todos los vascos y vascas. Y, de un modo especial, para todos los jóvenes vascos. Y en ello estamos y en ello estaremos, burubelarri. Sabéis que la tasa de desempleo entre los jóvenes es

mayor que la del resto de la población vasca. Así es. Pero así es en Euskadi, en Francia, en Alemania y en Gran Bretaña. Se trata de un problema estructural al que, no lo dudéis, tratamos de dar soluciones globales y locales. Los tres próximos años, dentro del Programa de Garantía Juvenil, en Euskadi vamos a destinar 28 millones de euros con el objetivo de integrarnos en el mercado laboral. Es solo uno de los frentes desde el que el Gobierno Vasco combate el paro juvenil, pero hay más: el acompañamiento en la búsqueda de empleo desde Lanbide, convenios con las tres universidades; apoyo a los jóvenes emprendedores, formación dual, planes para la primera experiencia laboral como Lehen Aukera que persiguen romper con ese círculo vicioso que tan bien conocéis y según el cual tenemos a un joven sin experiencia al que una empresa no se atreve a contratar por su falta de experiencia, lo que nos deja de nuevo a un joven sin contrato y sin experiencia...

Hori dena eta gehiago egin behar dugu. Euskadik etorkizunerako ideiak behar ditu, proposamenak behar ditu hezkuntza, osasuna, gizarte ekintzak hobetzeko. Euskadik etorkizunerako ideiak behar ditu, zuek hementxe bertan gera zaitzeten, hemen bizitzen, lan duinarekin; edo, atzerrira joatea erabakitzen baduzue –eta hori ere ona izan daiteke– nahi duzuenean etxera etortzeko aukera izan dezazuen eta bertan aukerak izan ditzazuen. Euskadik etorkizunari begiratuko dion jendea behar du, ez dugu behar iraganeko kontuak ekarriko dituenak.

Baten baino gehiagotan entzun didazue, eta uste dut Urkullu Lehendakariari ere bai, gure sasoiari kantatzen genuen abesti bat. Orduan sentitzen genuena adierazteko abesten genuen. 'Gazte gara gazte ta ez gaude konforme'. Gu baino hogeit hamar urte gazteago izan zirenek idatzi zuten. Baina gure epokarako balio zuen, eta zuen sasoiari ere bai. Ez zuek ez ni ez gaude konforme une honetan gertatzen diren hainbat gauzuekin. Aste honetan ez behar asko ikusi ditugu: lan istripuak, enpresen itxierak, errefuxiatuen krisi ikaragarria, atentatuak Europatik kanpo, baina berdin berdin onartezinak... Aldi berean, gure hezkuntzan hobetzeko arlo batzuk erakutsi dizkigute, matematika eta euskara. Naturak kendu diogun lurra berreskuratzen duela ikusi dugu, etxeak eraiki ditugun ibaietako bazterretan eta mendi-hegaletan. Asko daukagu egiteko. Asko dugu hobetzeko. Eta ezin gara konformatu. Jakina ezetz!

El otro día, en una charla del Lehendakari, le oí una frase que me encantó. Es mucho más que una frase. Es una forma de ver la vida. Es casi el mejor resumen de lo que tenemos por delante. Dijo el Lehendakari que muchas veces escucha que nuestros hijos e hijas van a vivir peor que sus padres, y que él se rebelaba a que eso fuera así. Que teníamos que conseguir que nuestros hijos e hijas vivieran mejor que nosotros. Que todos vosotros y vosotras tuvierais una buena vida. Y apostilló

que mejor no significa vivir de la misma manera, porque vais a vivir en una sociedad más abierta y global.

Tenemos, tenéis, una tarea apasionante. Construir una Euskadi mejor, una patria libre de mujeres y hombres libres. Y hay una sociedad vasca que nos está mirando a todos nosotros y nosotras para abrir ese camino. La sociedad ya sabe de quién puede esperar trabajo, compromiso dedicación. Y esos somos nosotros, Euzko Gaztedi, Eusko Alderdi Jeltzalea, el Partido Nacionalista Vasco.

Abertzales de Euzko Gaztedi. Estáis en el sitio correcto. Militáis en la organización que hace décadas tomó el buen camino. Entonces los cantos de sirena de la épica, de la lucha armada, tiraban mucho. Nosotros no caímos en aquella trampa, ni en la de la “kale borroka” posterior. Por cierto, visto lo visto el jueves en Gasteiz y en Iruña, algunos persisten en aquel error. Nosotros no. Ya en los 80 nuestro lema fue “euskera eta teknologia”. Fijaos qué diferencia tan radical. Fijaos a qué nos dedicábamos unos y otros. Seguid ese camino, nos va a llevar a la meta. Antes os decía que ni los ultras de un lado ni los del otro van a arreglar los problemas del Mundo. Tampoco aquí nos van a traer la libertad de Euskadi. Si el futuro de Euskadi, la construcción nacional, la independencia, depende de estos, apaga y vámonos.

Iruñean ere esan nizuen eta orain Mundakan, handik 170 kilometrora, esan nahi dizuet: ‘Zazpiak bat’ berria nahi dugu, gaur inoiz baino gehiago. Euskal herrialde guztien lankidetzaz sustatu behar dugu. Hegoaldea eta Iparraldea elkarrekin lan eginez, batera, bakoitza bere erritmoarekin, beti askatasunez adierazitako borondatearekin, baina elkarrekin. Atzo bertan, Nafarroa Akitania-Euskadi Euroerregioan sartu zen. Urrats berria da, urrats luzeagoa edo laburragoa, baina norabide onean emandako urratsa. Eta, lehen ere esan dizuet, ‘Zazpiak bat’ nahi dugu Herrien Herria garelako, Herrialdeen Herrialdea, baina batez ere pertsonen nazioa. Oso garrantzitsua da ideia hori hartzea, zuena egitea, hobetzea, indartzea eta zabaltzea. Pertsona helburu duen nazioa gara. Eta nazio hau geldirik egongo da horrenbeste pertsona langabe dauden bitartean. Nazio hau baztertuta egongo da bazterketa egoeran daudenak altxatzen saiatzen ez bada. Nazio hau itxita egongo da kanpotik etorkizun bila, babes bila datorrenari ateak ixten badizkio. Nazio hau ez da iraunkorra izango gure ingurumenaren garapen iraunkorra bultzatzen ez badugu. Nazio hau antzua izango da, zuek guztiok, emakume eta gizon gazteak egin dezakezen onena egitera animatzen ez bazaituzte, hemen jaio eta haziko diren semeak eta alabak, hurrengo mendeko Euskadi bermatuko dutenak. Gure Aberria odol eta haragizkoa da, baina gure egitasmo politikoak arima ere izan behar du. Horregatik, guk nahi dugun nazioa da martxan dagoen nazioa, solidarioa, inklusiboa, irekia, iraunkorra eta emankorra.



El futuro de Euskadi debe estar en buenas manos. En vuestras manos. Zuri Dagokizu! Zuei Dagokizue! Os pido, otra vez, compromiso. Nos vais a tener a vuestro lado, vais a tener al Partido y a las Instituciones hombro con hombro con vosotras y vosotros. Pero solo vosotros y vosotras debéis ser protagonistas de vuestro destino. Y vuestro destino, vuestro futuro, es el destino y el futuro de Euskadi. ¡Vamos a por él!